

KIROL CAMPUSA euskaraz – 2018

1.- NORENTZAT: LHko ikasleentzat, 2007-2012 urteen artean jaiotakoentzat.

2.- AMETX TXARTELA ume txartela bezala aktibatuta izatea derrigorrezkoa da IZENA EMATEKO.

3.- NOIZ: abuztuaren 31tik irailaren 6ra.

ORDUTEGIA: 09:30etik 14:00etara.

4.- Onartuen zerrendetan lehentasuna izango dute Amorebieta-Etxanon erroldatuek. Hori dela eta, eskari-kopurua eskainitako plaza-kopurua baino handiagoa bada, kanpoko biztanleak azkenak izango dira zerrendetan.

5.- Plaza mugatuak. Izena eman dutenen kopurua handiegia izanez gero, zozketa bidez esleituko dira plazak. Behin betiko zerrenda ekainaren 22an argitaratuko da.

6.- NEBA-ARREBAK: Zozketa egiterakoan zenbaki bakar batekin parte hartuko dute; horretarako, izena orri bakar baten eman beharko dute.

7.- IZENA EMATEKO EPEA: ekainaren 4tik 15era (biak barne), Gazte Informazio bulegoan. Ordutegia: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00.

8.- ORDAINKETA kreditu-txartelarekin egingo da. Izen-emate orria betetzean 10 €ko fidantza ordainduko da. Ordainketa osoa behin betiko zerrendak argitaratzen direnean egingo da, ezartzen den epean.

9.- PREZIOA: 35 €

Hobariak: Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan jasotakoaren arabera.

10.- MATRIKULA ITZULTZEA. Izena emateko epea amaituta ez da dirurik itzuliko, baldin eta honako egoeretako bat ez bada:

- a) Gaixotasun edo istripu larria (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- b) Kirol Campusera etortzea eragozten duen ustekabe edo beharrian larria (beti ere, idatziz eskatuta eta dagozkion dokumentuak aurkeztuta).

Behin Kirol Campusa hasita, matrikula ez da itzuliko.

11.- Kirol Campusaren jarduerak udal kirol eta kultura egoitzetan burutuko dira.

12.- INFORMAZIOA BATZARRA. Ekainaren 25ean 18:00etan bertan, campusari buruzko xehetasun guztiak emango dira: ekintzak, irteerak, hezitzaileen formazioa...

13.- Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak abenduaren 13ko 15/1999 Legean, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan, ezarritakoaren arabera erabiliko dira.